

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak, kanpoko beste enpresa batzuen esku utzi ezin diren jarduerak dira, beti jatorrizko enpresa berak egin beharrekoak dira. Beste kanpoko edozein enpresak ordezka ezin dituzten zereginak identifikatu beharko dira. Balorezko proposamenak egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarreerak lortzeko. Hori dela eta, ezagutzarekin zerikusia duen guztia, ezin da besteen esku utzi. Funtsezko jarduerak, batzuetan patenteekin lotuta daude, beste enpresek ideiak ez lapurtzeko betetzen den dokumentu judiziala da, fraudearekin lotuta dagoena.



“BETITXITA” enpresaren barruan, ekoizpena izango litzake, funtsezko jardueretako bat, produktuaren mekanizazio eta diseinua baitira enpresaren zeregin garrantzituena, ordezka ezinak.

Beraz, diseinu eta funtzionamenduaren inguruko informazioa, ez da beste inorekin partekatu behar produktua lapurtu ez dezaten, edo ideia kopiatu.

Zeregin hauetaz gain, beste jarduera mota batzuk ere kontuan hartu behar dira, produktuaren garapenerako. Jarduerak esaterako, produkzioa, arazoaren konponketa eta plataformako edo sareko jarduerako.



- Produkzioa/ekoiztea:

Produktuaren diseinuaren garapena, momentuz hau garatuta dago. Produktuen kantitate jakin bat egin behar da, hau da, aurretik beharrezkoa da

aztertzea zenbateko produkzioa egin behar den, jakiteko zenbat ale ekoiztu. Enpresa honen kasuan, maileguaren arabera hartuko litzake erabakia, eta erosleen kopurua aurreikusiz. Azkenik, nolakoa izango de entregatze-sistema zehaztea ere garrantzitsua da, honen bitartez helduko baita atea automatikoki ixteko mekanismoa erosleena.

- Arazoak konpontzea:

Ate desberdinak daude munduan, pisu eta ezaugarri desberdinetakoak, beraz, "BETITXITA"-k tartean izango duen arazo aipagarrienetako bat, ate desberdinetara egokitu beharra dagoela da. Hau da, mekanismoak funtziona dezan egoera bakoitzeko pisu desberdin bat jarri beharko da, eta agian, polea tamaina desberdin bat ere.

- Plataformako edo sareko jarduerak:

Produktuaren web-gunea, hau da, on-line saltzeko aukera izatea. Horretarako, ezinbestekoak dira plataformaren gestioa ona izatea, mantenua eta web-a promozionatzea (hau beste enpresa baten laguntzaz egin daiteke, ez baita produktuaren funtsezko jarduera bat, baizik eta, produktuaren zabalkuntza). Marketinean bereizten den enpresa batekin harremanetan jarriz gero, jendeari azkarrago iritsikoa zaio produktuaren berria.